

# LEIOAKO UDALA

## Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana

2027



# AURKIBIDEA

1	<b>SARRERA</b> .....	4
1.1.	Lege-testuingurua.....	4
1.2.	Leioaren testuingurua.....	6
2	<b>PLANAREN OINARRIAK ETA BALIABIDEAK</b> .....	7
2.1.	Plangintzaldi berriaren gidalerroak.....	7
2.2.	Planaren metodologia .....	8
2.3.	Prozesuaren helburuak, egiturak eta uratsak.....	10
3	<b>DIAGNOSTIKOA</b> .....	13
4	<b>EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA</b> .....	16
4.1.	Eragin-eremua.....	16
4.2.	Eragin-epea.....	16
4.3.	Planaren erronkak eta helburu estrategikoak.....	16
4.4.	Hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak eta betetze-maila.....	18
5	<b>2023-2027 PLAN ESTRATEGIKOA</b> .....	24
6	<b>HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK</b> .....	30
7	<b>PLANA GARATZEKO EGITURA</b> .....	47
8	<b>JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA</b> .....	48
9	<b>PLANAREN KOMUNIKAZIOA</b> .....	49

### 1. SARRERA

86/1997 Dekretuaren bidez, euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zitzairen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio guztiei, baita hori gauzatzeko jarraibideak ere. Horrela, 1990. urtean, EAeko Administrazio Orokorraren I. Plangintzaldia ezarri zen, eta VII. Plangintzaldira iritsi gara.

Azken urteetako plangintzaldiek euskararen erabilera modu eraginkorragoan bideratzeko kudeaketa-eredu batera ekarri gaituzte. Ardatz nagusietako bat da legeak erakundeei ezartzen dizkien eginkizunak betetzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

Lehen Plana onartu zenetik 34 urte pasatu dira eta hamaika aurrerapen egin dira, baina kanpo zein barne, euskararen erabilera badago oraindik zer hobetua hizkuntza ofizialen kudeaketa bikainaren bidean.

Testuinguru horretan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (aurrerantzean HPS) euskara-planen egitura berria zehaztu du VII. Plangintzaldirako: Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako (aurrerantzean, KEMEN). Eredu berria da, eta metodologia ezberdin bati erantzuten dio, bai planteamenduan, baita aplikazioan ere.

Txosten honetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana jaso dugu, helburua da Leioako Udalean euskarak daukan egoera zehaztea eta berau hobetzeko eginbeharrekoak ezartzea.

Plana diseinatzeko aipatutako KEMEN metodologia hartu da kontuan, horretarako kudeaketa-egitura berriak sortu dira eta plana elkarlanean diseinatu da.

#### 1.1. Lege-testuingurua

##### - **10/82 EUSKARAREN OINARRIZKO LEGEAN, azaroaren 24koa**

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera sustatzeko politikak, 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Legean, euskararen erabilpena arauzkotzekoan, dauka bere hastapeneko erreferentzia.

Lege horretan xedatzen da herritar guztiek dutela eskubidea herri-administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko. Ondorioz, herri-administrazioen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatua izan dadin.

##### - **86/1997 DEKRETUA, APIRILAREN 15ekoa**

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren bitartez arautu zen Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua, araubidezko marko orokorra ezarriz. Dekretu horren arabera, entitate publiko bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu behar zuen. Dekretuaren arabera, hizkuntza-normalizatzeko prozesua planifikatzeaz gain, erakunde bakoitzak bere ebaluazioa ere egin behar du eta horretarako 5 urteko plangintzaldiak ezarri ziren.

Eta zehazki, xedapen orokorren 4. atalean honela dio:

*Euskal herri-administrazioetako hizkuntz normalkuntza-prozesua hezurmami dadin, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko du. Era berean, lanpostu bakoitzari hizkuntz eskakizuna ezarriko zaio eta, hala dagokionean, derrigortasun-data ere bai, beti ere Dekretu honetan ezarritakoari jarraituz.*

### - **2/2016 LEGEA, APIRILAREN 7koa**

Halaber, kontuan hartu beharrekoa da 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Legearen 6. eta 7. artikuluek xedatutakoaren arabera, euskara tokiko erakundeon jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izango da. Edonola ere, bermatu egin beharko da erakundeekin harremanak izateko orduan herritarrak nahi duen hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

### - **179/2019 DEKRETUA, AZAROAREN 19koa**

Bestalde, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko dekretua ere aintzat hartuko dugu. Izan ere, dekretuaren 5. artikuluko (Printzipio gidariak) 3. puntuak honela dio:

3.– Tokiko hizkuntza-autonomia: udalei autonomia aitortzen zaie euskararen erabilera sustatzeko eta dinamizatzeko, bai eta beren hizkuntza-normalizazio instituzionala eta soziala lortzeko prozesua diseinatzeko ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, dekretu hau eta aplikatzekoa den gainerako araudia ere betez. Horretan, kontuan hartu beharko dituzte autonomia-erkidegoko erakunde komunek ezarri dituzten irizpideak euskararen erabilera planifikatu eta arautzeko. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean udalei hizkuntzen kudeaketaren arloan aitortzen zaien autonomia oinarri hartuta, udalok hizkuntza-politika, ekintzak eta jarduna bideratuko dituzte, batetik, euskararen erabilera guztiz normalizatzerara eta, bestetik, erakundeen eta administrazioaren funtzionamendua progresiboki euskalduntzera.

Zehaztasun horren arabera, tokiko erakunde askok erabaki dute EAEko gainerako administrazioekin harremana euskaraz izatea. Hori kontuan hartuko dugu, Leioako Udalak erakunde horiekin dituen harremanak euskaraz izateko hobetu beharreko alderdiak hobetzeko.

### - **KONTSUMITZAILE ETA ERABILITZAILEEN ESTATUTUA, 2003ko ABENDUAREN 22koa**

2003ko abenduaren 22an onetsitako Kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatutuak eta 2008ko uztailaren 1eko Dekretuak, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoak, kontsumitzaile eta erabiltzaileei ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute.

## 1.2. Leioaren testuingurua

Leioa Bizkaiko iparraldeko udalerrri bat da, Uribe Kosta eskualdekoa, Bilboko itsasadarraren eskuinaldean kokatua. 1526an sortua, Leioa ezaguna da bertan daudelako Euskal Herriko Unibertsitatearen errektoretza eta Bizkaiko campusaren egoitza. Mendebaldean Getxorekin egiten du muga, iparraldean Berangorekin, ekialdean Erandioarekin, eta hegoaldean Ibaizabal ibaiarekin.

2022ko erroldaren arabera, Leioak 32.603 herritar ditu. Eustateko 2016ko datuen arabera, Leioan bost lagunetik bat euskalduna da (% 35,71). Elebidun hartzaileak edo ia euskaldunak % 22,84 dira eta erdaldun elebakarrak, berriz, biztanleriaren erdia baino zerbait gutxiago (% 41.46). Nabarmenezkoa da Leioan azken urteetan izan den bilakaera; euskaldunen portzentajea eta elebidun hartzaileen portzentajea hazi egin dira. Erdaldun elebakarren portzentajeak, berriz, behera egin du.

BIZTANLEAK	EUSKALDUNAK	IA EUSKALDUNAK
32.603	% 35,71	% 22,84
(2022)	(2016)	(2016)

Euskarari dagokionez, Leioako Udala ez da hutsetik abiatzen, esperientzia dagoelako bai Erabileraren Plangintzan bai udalerrri mailako Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) ere.

Bestalde, antolaketa dagokionez, hauxe da antolatzeko modua:

UDAL-ANTOLAKETA SAILKA	UDAL-ANTOLAKETA GUNEA
Zerbitzu Orokorrak	Herritarren Arreta Zerbitzua
Ekonomia Zerbitzuak	Gaztelubideko Herritarren Arreta Zerbitzua
Giza Baliabideak eta Administrazio Kontratazioa	Bulego teknikoa
Hirigintza	Udal artxibategia
Gizarte Zerbitzuak	Behargintza
Kultura, Kirolak eta Gazteak	Kultur Leioa
Hezkuntza eta Hizkuntza Politika	Aterpe Leioa Gaztegunea
	Kulturguneak (Lamiako, San Bartolome, Pinueta, Txorierri)
	Ludoteka
	Kirol-guneak (Sakoneta, Kandelazubieta, Sarriena, Torresolo, probalekua)
	Gizarte Zerbitzuak
	Nagusien Etxeak ( Errekalde, Lamiako, Pinueta, Txorierri)
	Beste batzuk (EISE, Psikologoa eta abokatua...)

## 2. PLANAREN OINARRIAK ETA BALIABIDEAK

### 2.1. Plangintzaldi berriaren gidalerroak

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak argitaratu dituen VII. Plangintzaldirako gidalerroen arabera, herri-erakundeok dagokigun autonomia baliatuz herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu beharra daukagu; izan ere, legediaren arabera herritarrek bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea dute eta Administrazioak, aldiz, eskumen hori bermatzeko obligazioa.

Leioako Udalean hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko beharrizan hori Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planen bitartez gauzatzen dugu; izan ere, plan horien bidez, Udalak sustapen-ekintzak abiatzen ditu herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta gure erakundeok esparru guztietan euskararen erabilera areagotzeko.

Helburu hau lortzeko, agintari politiko eta teknikoak izango dira, ezinbestean, Leioako Udalean hizkuntza ofizialen erabileraren kudeaketa gidatu eta lideratuko dutenak. Eginbide horri ganoraz heltzeko, HPSk eman dituen hainbat aholku kontuan izan ditugu hizkuntza-kudeaketa eraginkorra egiteko.

Izan ere, VII. Plangintzaldiko hiru elementurik funtsezkoenak —egitura, sistematika eta adostasuna— kudeaketari dagozkio; eta era berean, kudeaketak erabateko eragina du erabileran.

Horrela, egiturari dagokionez, hizkuntza-kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzeko beharra kontuan hartuta, hori gauzatzeko sistematika bat ezarri da, agintaritzan dauden pertsonak eta tarteko arduradunak inplikatur.

Bestetik, Leioako Udalak parte-hartzaile guztien adostasuna, inplikazioa eta elkarlana zaindu eta bilatu ditu. Hala, langileen partaidetza bultzatu da euskararen erabilera sustatzeko konpromiso individual eta kolektiboak hartzeko.

Aurrekoez gain, euskararen erabileraren sustapenean prozesu arrakastatsuak egin dituzten erakundeen esperientziari erreparatuta, hainbat ondorio azaleratu dira. Besteak beste, EAeko sektore publikoak eskaintza linguistiko aktiboa egin behar duela, hizkuntza-hautuaren zama eta estres linguistikoa herritarren bizkarretik kentzeko. Gainera, erakundeek modu proaktiboan parte hartu behar dute euskararen erabileraren aldeko ekimenetan eta Plan honek horretan ere jarri nahi du begirada.

## 2.2. Planaren metodologia

Esan bezala, Hizkuntza Politika Sailak euskal sektore publikoko erakundeek euskararen erabilera kudeatzeko eta jarraipena egiteko marko eta tresna berriak garatu ditu, eta VII. Plangintzaldirako metodologia eta markoa proposatu ditu: KEMEN, Kudeaketa eta Erabilera Marko Euskararen Normalizaziorako. Beraz, marko berriaren arabera lerrokatuta antolatu dugu Leioako Udalaren euskararen egoeraren diagnostikoa eta Plana egiteko prozesua.

KEMENek erakundeetan euskararen kudeaketa, erabilera eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen ditu. Marko berrian lehentasunezko tokia aitortzen zaio kudeaketari, hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari eta elkarlanari. Baina kudeaketa ez da helburua, baliabidea baizik. Beraz, KEMENek kudeaketa eta jarraipenerako adierazleen sistema-eguneraketa ekarri du eta hurrengo hauek dira marko berriaren ezaugarri nagusiak:





- Edozein erakundetan, euskararen erabilera kudeatu eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen dituen markoa da.
- Kudeaketa erdigunean jarri da, eta euskararen erabilerari dagozkion adierazleetan eragin handia duten kudeaketa-adierazleak txertatu dira: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...
- Adierazleen formulazio positiboa egin da, normalizazio-prozesuaren norabidea markatzeko asmoa.
- Erakunde bakoitzak markoa bere errealitate, ezaugarri eta beharretara egokitzeko aukera dauka.
- Aginte-panela osatu da. Aginte-panelak Euskal Sektore Publikoko erakundeen jarraipenerako gutxienezko adierazleak biltzen ditu (14 adierazle).

Hauxe da KEMEN marko osoa:






Eta honako hau da aginte-panela:

## KUDEAKETA

<b>EUSKARAREN OROKORRA</b>	<b>KUDEAKETA</b>		1. Erabilera plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.
<b>LIDERGOA</b>			2. Arduradunek (politiko eta teknikoek) parte hartzen dute erabilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.
<b>LANGILEAK</b>			3. Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezen.
<b>HIZKUNTZA-KLAUSULAK</b>			4. Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.
			5. Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.

## ERABILERA

<b>ZERBITZU-HIZKUNTZA</b>	<b>HERRITARREKIKO HARREMANAK</b>		6. Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.
			7. Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.
<b>LAN-HIZKUNTZA</b>			8. Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.
	<b>BARNE-HARREMANAK</b>		9. Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.
	<b>KANPO-HARREMANAK</b>		10. Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.
	<b>SORTZE-HIZKUNTZA</b>		11. Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.
			12. Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.
			13. Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak
			14. Euskaraz sortzen dira dokumentuak



### 2.3. Prozesuaren helburuak, egiturak eta urratsak

#### HELBURUAK

##### Helburu nagusiak

- Leioako Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa-2027 diseinatzea aurreko lanaren ebaluazioan oinarrituta eta udal-ordezkarien eta langileen parte hartzearekin.
- 2024rako Kudeaketa Plana zehaztea.

##### Helburu zehatzak

- Leioako Udala osatzen duten zerbitzuekin euskararen presentziaren eta erabileraren ebaluazioa osatzea eta aberastea Udaleko langile eta ordezkariekin lan eginez.
- Leioako Udalean euskarak bizi duen egoeraren inguruko gogoeta, hausnarketa eta diagnostiko partekatua lantzea.
- Diagnostikoan oinarrituta, Leioako Udaleko langileak eta ordezkariak aktibatzeke eta euskararen erabilera areagotzeko aukerak eta bideak identifikatzea, eta horren arabera hurrengo urteetarako Erabilera Planaren eta Plan Estrategikoaren ildo nagusiak finkatzea.
- Egungo errealitatearen argazkian oinarrituta, hurrengo urteetarako lanabes erreal eta eraginkorra sortzea.
- Udal-langileak eta -ordezkariak Erabilera Plana diseinatzen inplikatzeko eta planaren arduradun sentitzea.

##### Zeharkako helburuak

- Euskara ahal bezain beste erabiltzen ez duten euskaldunak aktibatzeke estrategia berriak diseinatzea.
- Euskara ez dakiten langile eta ordezkari politikoak euskarara erakartzea.
- Leioako Udaleko eragileak sensibilizatzea, euskararen erabilera handitu dadin.
- Langileen eta ordezkari politikoen hizkuntza-ohituretan eragitea.
- Euskararen aktibazioan eragingo duten aliatuak topatzea eta euren arteko sarea sortzea.
- Herritarren aurrean lidergoa hartzea eta, euskararen aldeko ekimen gehiago bultzatuta, eragin biderkatzailea areagotzea.

### EGITURAK

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak osatzeko gidalerro eta adierazle-sistema berriak hartu ditugu aintzat.

Prozesua metodologikoki bideratzeko talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratu dira eta horretarako egiturak sortu dira:

#### TALDE ERAGILEA

#### PARTAIDEAK

Euskara-zinegotzia  
Udaleko euskara-teknikaria  
Elhuyarreko aholkulariak

#### FUNTZIOAK

Proiektua garatzeko beharrezko informazioa jaso eta trukatu.  
Komunikazio Plana diseinatu.  
Proiektua koordinatu eta ekintzak bideratu.  
Bidean sor daitezkeen arazoei konponbideak bilatu eta proiektuaren segimendua egin.  
Euskara Plana behar bezala diseinatzeko oinarriak landu.  
Prozesua eta emaitza baloratu. Egitasmoari etengabeko segimendua egitea.

#### FUNTZIONAMENDUA

Proiektuak iraun duen epean, proiektuaren inguruko lanak (informazio-bilketa...) eta prozesua antolatzeke eta txostenak kontrastatzeko **3 bilera** egin ditu.

Bestetik, Erabilera Batzordea sortu dugu prozesuaren edukiak lantzeko eta adosteko. Lidergoa izan da batzordea osatzeko irizpide nagusia; horretarako, erakundeko sail desberdinetako arduradunek eta ordezkari politikoek parte-hartzea lehenetsi da.

Erabilera Batzordeak 2 lan-saio egin ditu, gai hauek lantzeko:

#### 1. SAIOA

Diagnostikoaren zirriborroa aurkeztu, kontrastatu eta osatu.


Euskara Planaren helburu nagusia eta erronkak identifikatu.

#### 2. SAIOA

Euskara Planaren zirriborroa aztertu, kontrastatu eta osatu.

URRATSAK

Honako eskema jarraitu da prozesu osoa bideratzeko:



### 3. DIAGNOSTIKOA

Diagnostikoa egiteko, informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa erabili dugu. Adierazle kuantitatiboak hasierako egoera zein den jakiteko erreminta egokiak izan dira, baina informazio kualitatiboa erabiliz, egoera ezagutzeaz gain, egoera hori hobeto ulertu eta interpretatu ahal izan dugu.

Hauek dira datu-bilketa egiteko erabili ditugun informazio-iturriak:

- Langileen galdetegia
- Langileen gogoetarako kit pertsonalak
- Saitetako galdetegia

Jarraian jaso dugu Leioako Udaleko euskararen erabilera eta presentziaren egoeraren argazkia, KEMEN markoaren atal bakoitzean erakundea zein puntutan dagoen aztertuz.

#### KUDEAKETA

ARLOA	ONDORIOAK
<b>EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA</b>	Erakundeak ez du erabilera erabilera-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikorik egiten.
<b>LIDERGOA</b>	Arduradunek jarrera proaktiboagoa behar dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten. Adibide gisa, arduradun batzuek ez dakite bere sailean zer hizkuntza-gaitasun dagoen.
<b>LANGILEAK</b>	Hizkuntza-irizpideak jasota daude baina langile askok ez dituzte hizkuntza-irizpideak ezagutzen / betetzen. Udalak sustatutako normalizazio-egitasmoetan parte-hartzea sustatu behar da. Lanean erabilera sustatzeko egitasmo/dinamiken beharra ikusten dute zenbait langilek.
<b>GAITASUNA</b>	Langileen % 85,5 2. Edo 3. HE dauka egiaztatuta. Baina langile askok aitortzen dute gaztelaniaz moldatzen direla, euskaraz baino hobea. Ordezkarari politiko batzuek ez dakite euskaraz.
<b>EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA</b>	Erakundeak gehiago komunikatu behar die euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia herritar eta interes-taldee
<b>HIZKUNTZA-KLAUSULAK</b>	Jarraipen sistematikoagoa egin behar zaie kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.

**ERABILERA**

**Zerbitzu-hizkuntza**

ARLOA	ONDORIOAK
<b>IRUDIA</b>	<p>Emailak .eus domeinua izan arren, webguneak ez dauka. Edukiak badaude ele bietan.</p> <p>Eraikinetako errotulazio guztian euskararen erabilera bermatuta dago.</p> <p>Argitalpen, iragarki, publizitate-kanpaina, prentsa-ohar eta paper-gauza asko gaztelaniaz egiten dira.</p> <p>Ez da neurtzen jendaurreko ekitaldien ahozko/ idatzizko komunikazioen hizkuntza-erabilera.</p>
<b>HERRITARREKIKO HARREMANAK</b>	<p>Herritarrek gero eta euskara gehiago erabiltzea indargune bat da, eta idatzizko harremanetan langile askok euskaraz edo ele bietan egiten dute.</p> <p>Bestetik, hainbatetan euskaraz zein gaztelaniaz komunikatzeko aukera ematen zaie, baina ez dago guztiz bermatuta euskarazko eskaerari euskaraz erantzutea. Euskaraz egindako idatzizko eskaera batzuei gaztelaniaz edo ele bietan erantzun zaie.</p> <p>Erabiltzaile euskaldunak erakartzeko giroa sortu beharra aipatzen dute langileek eta erronka bezala udal-arlo guztietan herritarrei euskaraz normaltasunez erantzutea aipatzen da.</p>

**Lan-hizkuntza**

ARLOA	ONDORIOAK
<b>BARNE-HARREMANAK</b>	<p>Langile batzuen arteko harremanak euskaraz garatzen dira modu naturalean. Hainbat langilek euskara gehiago egiteko gogoia eta prestutasuna adierazi dute.</p> <p>Lan-bileretako euskararen erabilera oso baxua da.</p> <p>Pertsonen kudeaketari dagozkion zabalkunde handiko komunikazio batzuk gaztelera egiten dira, bereziki, informatika arloko presazko kontuak.</p>
<b>KANPO-HARREMANAK</b>	<p>Administrazioarekin, harremanak nagusiki gaztelaniaz edo ele bitan izaten dira.</p> <p>Erakunde pribatuekin, harremanak nagusiki gaztelaniaz edo ele bitan izatean dira.</p>

<b>PRESTAKUNTZA</b>	<p>Euskara ikasteko edo hobetzeko aukerak badaude, baina langile askok ez dituzte erabiltzen.</p> <p>Trebakuntza eta prestakuntzaren sustapena eskatzen dute zenbait langilek.</p>
<b>BALIABIDE INFORMATIKOAK</b>	<p>Baliabide informatiko gehienak gaztelaniaz erabiltzen dira.</p>
<b>SORTZE-HIZKUNTZA</b>	<p>Erakunde barruko idatzi gehienak gaztelaniaz sortzen dira, nahiz eta langile batzuen sortze-hizkuntza euskara den.</p>

## 4. LEIOAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (2023-2027).

### 4.1. Eragin eremua

Plan honen eragin-eremuak Leioako Udala eta bere ekipamendu guztia hartzen ditu, eta atal guztietara hedatuko da.

### 4.2. Eragin epea

Planaren eragin-aldia onartzen den egunean hasi eta 2027ko abenduaren 31n bukatuko da; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako hizkuntza-normalizaziorako prozesuaren VII. Plangintzaldia amaitzen den eguna.

### 4.3. Planaren erronkak eta helburu estrategikoak

Aurreko planek markatutako lan-ildoari jarraiki, honako hau izango da orain aurkezten den planaren xede nagusia:

***“Leioan euskara normalizatzea, sustatzea eta babestea, eta, herritarrari zerbitzua ematea berak nahi duen hizkuntzan; baita hori sustatzea ere”.***

Hortik abiatuta, KEMEN markoan oinarritutako Plan Estrategikoa egin dugu. Jarraian, 2027an non egon nahi dugun jaso dugu, horrela definitu ditugu plan honen erronka nagusiak:

KUDEAKETA	
ERRONKA	Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea.
ERABILERA	
ERRONKA	Euskararen presentzia eta erabilera areagotzea , bai lan harremanetan, baita herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan ere, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko asmoz.

Era berean, erronka horiek lortzeko zer egin behar dugun adostu dugu, eta horrela definitu ditugu planaren erronkei eusteko helburu estrategikoak:

## HELBURU ESTRATEGIKOAK

<b>KUDEAKETA OROKORRA</b>	Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea: Erabilera planaren eta kudeaketa planaren segimendua sistematizatu: adierazle eta segimendu sistemak diseinatu eta garatu; eta euskara-plana erakundearen plan estrategikoetan edo/eta kudeaketa-planetan txertatzea
<b>LIDERGOA</b>	Udaleko arduradun politiko eta teknikoek euskararen gaia beren eguneroko lanetan txertatzea
<b>LANGILEAK</b>	Hizkuntzen kudeaketa langileen eta zerbitzuen garapen kudeaketan integratzea.
<b>GAITASUNA</b>	Langileen gaitasun maila hobetzea.
<b>ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA</b>	Euskararen erabilera sustatzeko martxan jartzen diren ekimenen berri ematea herritarrei zien interes-taldee.
<b>HIZKUNTZA-KLAUSULAK</b>	Hirugarrenek herritarrekin duten harremanetan hizkuntza-irizpideak betetzea
<b>IRUDIA</b>	Kanpo irudian, argitalpenetan, komunikazioan eta jendaurreko ekitaldietan euskararen presentzia areagotzea, betiere hizkuntza-irizpideak beteta.
<b>HERRITARREKIKO HARREMANAK</b>	Jendaurreko gunetan jarrera proaktiboa erakustea herritarrek euskara erabiltzera gonbidatzeko. Izan ere, herritarrekiko eskaintza eta harremana euskaraz bermatu nahi da eta horretarako, zerbitzuetan euskararen erabilera indartu nahi da, euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin.
<b>BARNE-HARREMANAK</b>	Barne-harremanetan euskararen erabilera areagotzea, ahoz eta idatziz; Komunikazioan eta lan-tresnetan euskara ere ohikotasunez erabiltzea.
<b>KANPO-HARREMANAK</b>	EAEko administrazioekiko harremanetan eta hornitzaileekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzea.
<b>PRESTAKUNTZA</b>	Pertsonen kudeaketan euskararen presentzia eta erabilera areagotzea; Euskarazko prestakuntzaren eskaintza areagotzea eta eskaera sustatzea.
<b>BALIABIDE INFORMATIKOAK</b>	Euskarri informatikoen euskarazko bertsioa ere egotea eta horiek erabiltzen direla sustatzea.
<b>SORTZE-HIZKUNTZA</b>	Idatzi gehiago euskaraz sortzea.



#### 4.4. Hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak eta betetze maila

86/1997ko Dekretuaren 11. artikulua erakundeak nahitaez bete beharreko derrigorrezko hizkuntza-eskakizunen indizea ezartzen du. Indize hori plangintzaldi bakoitza hasterako indarrean dauden Errolda eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistiko ofizialen arabera zehazten da.

##### Leioako Udaleko Derrigortasun Indizea

Derrigortasun Indizea da erakunde bakoitzean derrigortasun-data izango duten lanpostuen gutxieneko ehunekoa. Derrigortasun Indizeak gutxieneko ehunekoa adierazten du. Erakunde bakoitzak ehuneko horretatik gora jo dezake, bere egoeraren arabera. Hori horrela, erakunde bakoitzaren Derrigortasun Indizea batuketa honen bitartez kalkulatzen da:

$$DI (\%) = \text{euskaldunen } \% + (\text{ia euskaldunen } \% / 2)$$

Hau da, Derrigortasun Indizea ehuneko bat da, eta bi ehuneko horien batuketa da: erakundearen jardura esparruan dauden euskaldunen ehunekoa, gehi ia euskaldunen ehunekoaren erdia.

Derrigortasun Indizea kalkulatzeko, plangintzaldi bakoitza hasten denean indarrean dagoen Errolda edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako azken datuak erabili behar dira.

Azken datuen arabera (Eustat 2016), hurrengo hau da Leioako Udalaren Derrigortasun Indizea:

EUSKALDUNAK	IA-EUSKALDUNAK	EUS+IA-EUS/2
% 35,71	% 22,84	% 47,13

Hau da, Leioako Udaleko lanpostuen % 47,13ri derrigortasun-data esleitu behar zaie.

##### Derrigortasun-indizearen betetze-maila

Leioako udaleko azken Lanpostu Zerrendaren arabera 187 lanpostu daude, eta horietako 127tan derrigortasun-data ezarrita dago, hau da, lanpostuen % 67,91.

Baina kontuan hartzekoa da langileen % 28k dagokien hizkuntza-eskakizuna baino gutxiago daukala eta % 41ek derrigortasun-data igarota daukala.

Lanpostu-zerrenda (2022ko apirila)

LANPOSTUAREN IZENA	HE	DERRIGORTASUN -DATA	LANGILE AK DAUKAN HE
<b>1.- ZERBITZU OROKORRAK</b>			
Idazkari nagusia	4	1991/1/1	3
Idazkariordea	4	1994/7/1	4
Zerbitzu Orokorretako teknikaria	3	2020/7/23	-
Ordenantza	2	2004/2/26	2
Administraria	2	1993/7/1	3
Administraria	2	1991/7/1	2
Administraria	2	2020/7/23	-
Teknikari Modern. eta Kalitatea	3	2022/04/28	3
Administraria	2	1991/1/1	2
Administraria	2	1992/7/1	3
Administraria	2	1992/7/1	3
Administraria	2	1992/7/1	3
Administraria	2	----	-
Administraria	2	1992/7/1	3
Administraria	2	1990/9/30	2
Administraria	2	2004/2/26	2
<b>2.- ZERBITZU EKONOMIKOAK</b>			
<b>2.1.- KONTU-HARTZAIETZA ETA KONTABILITATEA</b>			
Kontu-hartzailea	4	1991/1/1	4
Zerbitzu ekonomikoetako teknikaria	3	2020/7/23	
Administraria	2		3
Administraria	2		3
Administraria	2	1990/9/30	-
Administraria	2	2008/10/30	2
Administraria	2	2020/7/23	-
Administrari laguntzailea	2	2022/04/28	2
<b>2.2.- DIRUZAIETZA ETA DIRU-SARREREN KUDEAKETA</b>			
Diruzaina	4	1991/1/1	-
Administraria	2	1990/9/30	2
Ekonomialaria	3	2004/2/26	3
Administraria	2		-
Zerga eta Lizentzien ikuskatzailea	3	1993/7/1	3

## LEIOAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

Administraria	2		2
Administraria	2	1993/7/1	3
Administraria	2	1995/6/30	-
Administraria	2	2008/10/30	2
Administrari laguntzailea	2	----	-
<b>3.- GIZA-BALIABIDEAK ETA ADMINISTRAZIO-KONTRATUAK</b>			
A.E. Giza-baliabideak eta kontratazioa	4		3
Giza Baliabideetako eta Kontratazioko teknikaria	3	2020/7/23	3
Administraria	2	2015/11/11	1
Administraria	2	2015/11/11	3
Administraria	2	1991/1/1	2
Administraria	2	2015/11/11	3
Administraria	2	2020/7/23	2
Administraria	2	2020/7/23	-
Administraria	2	2020/7/23	-
Administraria	2	2020/7/23	-
Administrari laguntzailea	2	2015/11/11	2
Administrari laguntzailea	2	2015/11/11	2
Administrari laguntzailea	2	1997/3/17	3
<b>4.- HIRIGINTZA</b>			
Arkitektoa	3	2020/7/23	3
Arkitektoa	3	2020/7/23	4
Hirigintzako teknikaria	3	2020/7/23	3
Erdi mailako teknikaria	3	2015/11/11	3
Arkitekto Teknikoa	3		-
Erdi mailako teknikaria	3		2
Arkitekto Teknikoa	3		-
Delineatzailea	2	2006/12/31	-
Delineatzailea	2	2004/2/26	2
Administraria	2	1992/7/1	3
Administraria	2	2006/12/31	-
Administraria	2	2004/2/26	2
Administraria	2	2020/7/23	-
Lantaldeen arduraduna	2	2015/11/11	-
Instalazioak mantentzeko ofiziala	2		-
Mantentze-lanetako berariazko langilea	1		-
Mantentze-lanetako langilea	2	----	2
Mantentze-lanetako langilea	2	2005/12/31	
Mantentze-lanetako langilea	2	----	-
Mantentze-lanetako langilea	2	2004/2/26	
Mantentze-lanetako langilea	2	2004/2/26	
Mantentze-lanetako langilea	2	2005/12/31	3

## LEIOAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

Igeltseroa	1	2022/04/28	3
Igeltseroa	1		-
Igeltseroa	1		-
Hilerriko langilea	2	2004/2/26	2
Igeltserotza-bideak eta obrak	1		-
Igeltserotza-bideak eta obrak	1	BR	-
Uretako ofiziala	1		3
Udal zerbitzuetako gidaria	1	2022/04/28	1
Udal zerbitzuetako gidaria	1		-
Langileen eta lorezaintza-zerbitzuen ikuskatzailea	2		1
Lorezaintza Taldeko burua	2		-
Lorzain-ofiziala	1		-
Lorzain-ofiziala	1		-
Lorzain-ofiziala	1	1997/3/17	3
Lorzain-ofiziala	1		2
Lorzain-ofiziala	1	2015/11/11	1
Lorzain-ofiziala	1	2015/11/11	2
Pintore-ofiziala	1	1991/6/1	1
Lorzain-ofiziala	1	----	-
Lorzaintzako peoia	1	----	-
Lorzaintzako peoia	1	----	-
Lorzaintzako peoia	1	----	3
Lorzaintzako peoia	1	2022/04/28	2
Lorzaintzako peoia	1	2022/04/28	1
Lorzaintzako peoia	1	2022/04/28	1
Lorzaintzako peoia	1	----	-
Lorzaintzako peoia	1	----	-
Lorzaintzako peoia	1	2022/04/28	1
Lorzaintzako peoia	1	2022/04/28	2
Lorzaintzako peoia	1	2022/04/28	2
Lorzaintzako peoia	1	----	-
<b>5.- GIZARTE-ZERBITZUAK</b>			
Gizarte zerbitzuetako teknikaria	3	1994/11/7	3
Gizarte zerbitzuetako teknikaria- Unitateko arduraduna	3	1993/12/31	3
Gizarte zerbitzuetako teknikaria	3	1996/1/1	3
Gizarte zerbitzuetako teknikaria	3	2008/10/30	3
Gizarte zerbitzuetako teknikaria	3	2008/10/30	3
Gizarte zerbitzuetako teknikaria	3	2020/7/23	3
Gizarte zerbitzuetako teknikaria	3	2020/7/23	-
Administraria	2	1996/1/1	3
Administraria	2	2017/12/31	2
Administraria	2	----	-

**LEIOAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA**

Administraria	2	---	-
<b>6.- KULTURA ETA KIROLAK</b>			
<b>6.1.- KULTURA</b>			
Kultura Arloko zuzendaria	3	2008/10/30	-
Kultur koordinatzailea	3	1993/12/31	3
Kultur koordinatzailea	3	1994/7/1	-
Kultur koordinatzailea	3	2020/7/23	-
Kultur koordinatzailea	3	2020/7/23	-
Liburuzaina	3	2004/2/26	3
Administraria	2	1993/7/1	2
Administraria	2	1996/1/1	3
Administraria	2	1996/1/1	3
Administraria	2	2005/7/28	3
Administraria	2	2005/9/29	3
Kultur laguntzailea	2	2004/2/26	3
Kultur laguntzailea	2	2006/12/31	3
Administrazioa.	2	2015/11/11	3
Administrari laguntzailea	2	2004/2/26	1
Administrari laguntzailea	2	2004/2/26	3
Administrari laguntzailea	2	2015/11/11	2
Administrari laguntzailea	2	2015/11/11	2
<b>6.2.- KIROLAK</b>			
Kirol instalazioen eta ohitura osasungarrien zuzendari teknikoa	3	2020/7/23	3
Administraria	2	2015/11/11	-
Administraria	2	1993/7/1	1
Administraria	2	2020/7/23	-
Administrazioa.	2	2020/7/23	-
Administrari laguntzailea	2	2015/11/11	3
Administrari laguntzailea	2	2015/11/11	3
<b>7.- HEZKUNTZA ETA HIZKUNTZA POLITIKA</b>			
Hezkuntza-teknikaria	4	2020/7/23	4
Euskara teknikaria	4	2020/7/23	4
Administraria	3	2020/7/23	3
<b>8.- UDALTZAINGOA</b>			
Tokiko Zerbitzuetako ofizial burua	3		3
Ofizialordea	3		2
Ofizialordea	3	2015/11/11	3
Agente lehena	2	2005/12/31	2
Agente lehena	2	2005/12/31	2
Agente lehena	2	1990/9/30	2
Agente lehena	2	1993/7/1	2
Agente lehena	2	2005/12/31	2

**LEIOAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA**

Agente lehena	2	2005/12/31	2
Udaltzaina	2		1
Udaltzaina	2		-
Udaltzaina	2	2017/11/30	2
Udaltzaina	2	2017/11/30	-
Udaltzaina	2	2017/11/30	-
Udaltzaina	2	2017/11/30	2
Udaltzaina	2		1
Udaltzaina	2	1993/7/1	1
Udaltzaina	2		2
Udaltzaina	2		-
Udaltzaina	2	1993/7/1	1
Udaltzaina	2	2017/11/30	2
Udaltzaina	2	31/04/1995	3
Udaltzaina	2	1999/10/7	-
Udaltzaina	2	1999/10/7	2
Udaltzaina	2	2005/12/31	2
Udaltzaina	2	2005/12/31	2
Udaltzaina	2	2004/2/26	3
Udaltzaina	2	2005/12/31	3
Udaltzaina	2	2004/2/26	3
Udaltzaina	2		1
Udaltzaina	2	2004/2/26	2
Udaltzaina	2	2008/10/30	-
Udaltzaina	2	2008/10/30	2
Udaltzaina	2	2008/10/30	2
Udaltzaina	2	2008/10/30	2
Udaltzaina	2	2008/10/30	2
Udaltzaina	2		2
Udaltzaina	2		2
Udaltzaina	2	2011/2/24	2
Udaltzaina	2	2011/2/24	2
Udaltzaina	2	2015/11/11	2
<b>9.- BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK</b>			
Alkatetzako idazkari partikularra			3
<b>10.- BEHARGINTZA</b>			
Behargintzako zuzendaria	3	erabateko egonkortasuna	3
Teknikaria	3	erabateko egonkortasuna	3
Teknikaria	3	erabateko egonkortasuna	3
Teknikaria	3	---	-
Administraria	2	erabateko egonkortasuna	2
Administraria	2	erabateko egonkortasuna	3

### 5. PLAN ESTRATEGIKOA

Aurreko planaren ebaluazio-datuetan oinarrituta KEMENeko arlo guztiei buruzko hausnarketa kualitatiboa egin da. Horretarako, arloz arloko balorazioa egin genuen Lantalde Teknikoan eta Erabilera Batzordean, eta egungo egoeraren berri emateaz gain, indarguneak eta zer hobetuak identifikatu genituen. Esan bezala, hausnarketa kualitatibo horri esker, 2027ra bitartean lortu nahi diren erronkak eta horretarako helburu estrategikoak eta ekintzak identifikatu ditugu.

Aipatzekoa da, KEMENeko Aginte Panela osatzen duten adierazleak urtero garatu eta ebaluatuko direla, sistematikoki. Jarraian, erronka eta helburu estrategiko horiek lantzeko adierazleak jaso ditugu, horixe izango da gure ibilbide-orria, gure plan estrategikoa, alegia.

LEIOAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

KUDEAKETA						
Kudeaketaren erronka						
Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea.						
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK				
		ZK	ADIERAZLEAK	BISIOA		
				HASIERAKO EGOERA 2023 %	AURREI KUSITAKO EGOERA 2027 %	ALDEA igoera %
1.0.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Erabilera planaren eta kudeaketa planaren segimendua sistematizatu: adierazle eta segimendu sistemak diseinatu eta garatu; eta euskara-plana erakundearen plan estrategikoetan edo/eta kudeaketa-planetan txertatzea	1	Erakundeak erabilera planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du	10	75	65
		2	Erabilera plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	10	60	50
		3	Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN).	10	60	50
1.0.2 LIDERGOA	Udaleko arduradun politiko eta teknikoek euskararen gaia beren eguneroko lanetan txertatzea	4	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.	10	75	65
		5	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	10	100	90
		6	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak biltzen dituzte, erabilera planean zehaztutako moduan	10	100	90
1.0.3 LANGILEAK	Hizkuntzen kudeaketa langileen eta zerbitzuen garapen kudeaketan integratzea.	7	Langileei ematen zaie informazioa erakundearen erabilera planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten	39	90	51
		8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte	71	90	19
		9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak	10	100	90
		10	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan	36	80	44
		11	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz	30	90	60



LEIOAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

KUDEAKETA						
Kudeaketaren erronka						
Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea.						
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK				
		ZK	ADIERAZLEAK	BISIOA		
				HASIERAKO EGOERA 2023 %	AURREKUSITAKO EGOERA 2027 %	ALDEA igoera %
1.0.4 GAITASUNA	Langileen gaitasun maila hobetzea.	12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	75	90	15
		13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	70	85	15
		14	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko	40	100	60
1.0.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	Euskararen erabilera sustatzeko martxan jartzen diren ekimenen berri ematea herritarrei zien interes taldeei.	15	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldeei	20	50	30
		16	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeo ekimenetan parte hartzen du	30	50	20
1.0.6 HIZKUNTZA KLAUSULAK	Hirugarrenek herritarrekin duten harremanetan hizkuntza-irizpideak betetzea	17	Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira	10	80	70
		18	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira	10	80	70
		19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze-mailari	0	80	80
		20	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza-klausulen betetze-mailari	0	80	80

## LEIOAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

ERABILERA							
Erabileraren erronka Euskararen presentzia eta erabilera areagotzea , bai lan harremanetan, baita herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan ere, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko asmoz.							
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK					
		ZK	ADIERAZLEAK	HASIERAKO EGOERA 2023	AURRE KUSITAKO EGOERA	ALDEA igoera %	
2 - 1  Z E R B I T Z U  H I Z K U N T Z A	2.1.1 IRUDIA	Kanpo irudian, argitalpenetan, komunikazioan eta jendaurreko ekitaldietan euskararen presentzia areagotzea, betiere hizkuntza-irizpideak beteta.	21	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude	100	100	0
			22	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude	60	100	40
			23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan	50	100	50
			24	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak	100	100	0
	2.1.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK	Jendaurreko guneetan jarrera proaktiboa erakustea herritarrek euskara erabiltzera gonbidatzeko. Izan ere, herritarrekiko eskaintza eta harremana euskaraz bermatu nahi da eta horretarako, zerbitzuetan euskararen erabilera indartu nahi da, euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin.	25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	46	100	54
			26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	67	100	33
			27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	50	100	50
			28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	30	100	70
			29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	95	100	5
			30	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz	25	50	25
			31	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz	23	50	27

## LEIOAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

ERABILERA							
Erabileraren erronka Euskararen presentzia eta erabilera areagotzea , bai lan harremanetan, baita herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan ere, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko asmoz.							
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK					
		ZK	ADIERAZLEAK	BISIOA			
				HASIERAKO EGOERA 2023	AURRE KUSITAKO EGOERA	ALDEA igoera %	
2.2 LAN HIZKUNTZA	2.2.1 BARNE-HARREMANAK	Barne-harremanetan euskararen erabilera areagotzea, ahoz eta idatziz; Komunikazioan eta lan tresnetan euskara ere ohikotasunez erabiltzea.	32	Lan-bilerak euskaraz egiten dira	22	40	18
			33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da	25	40	15
			34	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da	49	60	11
			35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira	30	50	20
			36	Erakunde barneko prozedura administratiboak euskaraz jartzen dira abian	30	40	10
			37	Xedapen orokorrak euskaraz jartzen dira abian	30	40	10
			38	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago	70	100	30
	2.2.2 KANPO-HARREMANAK	EAEko administrazioekiko harremanetan eta hornitzaileekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzea.	39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana	62	75	13
			40	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	54	70	16
			41	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana	33	50	17
			42	Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	68	75	7
	2.2.3 PRESTAKUNTZA	Pertsonen kudeaketan euskararen presentzia eta erabilera areagotzea; Euskarazko prestakuntzaren eskaintza areagotzea eta eskaera sustatzea.	43	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei	20	50	30
			44	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra	20	50	30
			45	Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei	50	100	50
	2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK	Euskarri informatikoen euskarazko bertsioa ere egotea eta horiek erabiltzen direla sustatzea.	46	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak	3	100	97
47			Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak	3	40	37	
2.2.5 SORTZE-HIZKUNTZA	Idatzi gehiago euskaraz sortzea.	48	Euskaraz sortzen dira dokumentuak	40	60	20	

## 6.HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

### HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

#### HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERARAKO ARAU OROKORRAK

- I. Zerbitzu hizkuntzak
- II. Lan hizkuntzak
- III. Leioako Udalaren barruko laneko komunikazioak.
- IV. Beste herri administrazioekiko harremanak.
- V. Komunikazio instituzionala.
- VI. Itzulpen irizpideak hizkuntza ofizialen erabilera arloan.

#### HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERAREN GAINEKO IRIZPIDEAK LEIOAKO UDALAREN MENDEKO JARDUN ESPARRUETAN

- VII. Langileen etengabeko prestakuntza.
- VIII. Udal langile eta funtzionarioen hautaketa
- IX. Kontratazio administratiboak.
- X. Dirulaguntzak.
- XI. Udalarenak diren instalazio eta lokalen erabilera
- XII. Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak.
- XIII. Argitalpenak.
- XIV. Tresna eta aplikazio informatikoak.
- XV. Internet eta intranet sareak.
- XVI. Erregistroa.
- XVII. Errotulazioa eta jendearentzako argibide osagaiak.

#### LEIOAKO UDALAREN ADMINISTRAZIO ATALEN IZAERA ETA HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

- XVIII. Administrazio atalen izaera eta hizkuntza helburuak.
- XIX. Lanpostuei ezarritako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak.
- XX. Salbuespen-arauak

EUSKARAREN ERABILERA PLANA (2023-2027)  
Hizkuntza-irizpideak

## HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERARAKO ARAU OROKORRAK

### I. Zerbitzu hizkuntzak

1. Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da eta, gaztelania bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeon hizkuntza ofiziala, eta, alde horretatik, erakundeon jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izango da. Edonola ere, bermatu beharko da herritarrek benetan egikaritu ahal izatea toki-erakundeekin harremanak izateko orduan hizkuntza ofiziala hautatzeko duten eskubidea eta, hortaz toki-erakundeek hizkuntza horretan artatzeko duten betebeharra, hartarako behar diren neurriak harturik (2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeetarako buruzkoa. 6. artikulua, 1.-)

Leioako Udalak, beraz, herritarrekin dituen harreman mota guztietan, bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko du, herritarren hizkuntza hautua errespetatuz.

2. Ahozko harremanetan, era honetan jokatu da:

- a) Leioako Udaleko langileak herritarrei lehenik euskaraz zuzendu behar zaizkie, eta gero herritarrek hautatzen duten hizkuntza ofizialean jarraitu behar dute.
- b) Herritarrak hautatutako hizkuntzaz bideratu behar dute langileek zerbitzua. Hortaz, Leioako Udaleko langileek ez dute eskumenik inori eskatzeko hizkuntza batean edo bestean jarduteko. Hori dela eta, herritarrekin harreman zuzena duten langileek euskaraz eta gaztelaniaz jarduteko nahikoa gaitasuna dutela ziurtatu eta bermatu behar du Leioako Udalak.
- c) Hartzaile jakin edo zehatzik ez duten ahozko mezuak (hau da, gailu automatikoz, telefono bidezko informazio zerbitzuen bidez, bozgorailuz eta abarrez igortzen direnak) lehenik euskaraz eman behar dira, eta gero gaztelaniaz.

3. Idatzizko harremanetan, era honetan jokatu da:

- a) Herritarrak edo dagokion entitateak administrazioarekiko harremanetan euskaraz jardutea hautatu duenean, edota haiek euskara hutsean igorritako idatzien erantzuna denean, euskaraz jardun behar du Leioako Udalak. Idatzia hizkuntza bietan edo gaztelaniaz jaso bada, bi hizkuntza ofizialean bideratu behar da. Zerbitzu bakoitzak bere inprimaki eta agiri estandarrak egokitu beharko ditu xede horri begira, hala behar den guztietan.
- b) Pertsona fisiko edo juridikoen datuak jasotzeko xedez, zerbitzuek dituzten

datu base eta erregistro guztietan alor bat ipini behar da, pertsona horiek harremanetarako hautatu duten hizkuntza zein den jasotzeko.

- c) Leioako Udalak bere zerbitzuak emateko erabiltzen dituen inprimaki guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatzita egin behar dira.
- d) Herritarrei zuzendu beharreko gainerako dokumentazio estandarizatu orokorra bi hizkuntza ofizialetan egon behar da.
- e) Hartzaile jakin eta zehatzik ez duten administrazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita bideratu behar dira.
- f) Hizkuntza ofizialak euskarri berean eta bi zutabetan antolatuko dira, euskarazko testua ezkerreko zutabearen joan behar da eta gaztelaniakoa eskuinekoan.
- g) Hala ere, hizkuntza ofizialak, zutabeetan barik, bata bestearen ondoan edo gainean antolatzen direnean, euskarak lehentasuna izango du (gaztelaniazko testuaren gainean edo ezkerrean idatzita) eta letra beltzez nabarmenduko da.
- h) Departamentu bakoitzak bere zerbitzuak euskaraz erabiltzeko aukera dagoela nabarmenduko die herritarrei eta entitateei, zerbitzu bakoitzaren ezaugarrien arabera.

## **II. Lan hizkuntzak**

1. Euskara eta gaztelania dira Leioako Udalaren lan hizkuntza ofizialak. Lehentasunez, euskara izan behar da Leioako Udalaren lan hizkuntza, eta baliabideen ekonomia irizpideari jarraituz, euskaraz egin daitekeen guztia hizkuntza horretan egin behar da.

2. Euskarazko atalzat definitzen diren zerbitzuetan euskara izan behar da laneko hizkuntza nagusia, ahoz nahiz idatziz.

3. Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukaten langileei bi hizkuntza ofizialetan jarduteko gaitasuna aitortzen zaie. Horrenbestez, hizkuntza batean zein bestean erantzun behar diote lanari, kasu bakoitzean hizkuntza bakar batean, lan beharkizunen arabera, dokumentuak itzultzeko edo zuzentzeko ezartzen diren baliabideen laguntzaz.

4. Hirugarren edo laugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileek euskaraz egin behar dute lan nagusiki, ahoz nahiz idatziz. Dena den, dokumentu bakoitzaren ezaugarrien arabera erabaki behar da zein hizkuntzatan sortu edo bideratu behar den, dokumentuak itzultzeko edo zuzentzeko ezartzen diren baliabideen laguntzaz, eta pertsonalaren hizkuntza gaitasuna hobetzeko ezartzen diren baliabideen laguntzaz.

5. Leioako Udalaren lan bileretan, hizkuntza kudeatzeko irizpide hauek erabili behar dira:

- a) Zerbitzuek antolatzen dituzten bileretan, hizkuntza nola kudeatuko den aldeaz aurretik aztertu behar da. Bilera zein hizkuntzatan egingo den

zehaztu ostean erabakiko da bilera deia, bilerarako euskarriak eta dokumentazioa zein hizkuntzatan eman.

b) Bilera euskaraz egin behar da partaide guztiek euskaraz behar besteko mailan dakitenean, elkar ulertzen dutela ziurtatzeko.

c) Bilera egindako hizkuntzan edo hizkuntzetan jasoko da bileraren akta.

6. Berariaz harremana euskaraz izan nahi dutela adierazten duten herritarren, erakundeen edo herri administrazioen harremanetan, idatziak hizkuntza horretan sortu eta bideratu behar dira.

### **III. Leioako Udalaren barruko laneko komunikazioak.**

1. Leioako Udalaren barruko komunikazio administratiboak, idatzizkoak edo mintzatuak izan, lehenetsuz euskaraz edo, hori posible ez denean, bi hizkuntza ofizialetan bideratu behar dira.

2. Barruko komunikazio hauetan euskaraz aritzea errazteko, Leioako Udaleko langileak identifikatzeko erabiltzen diren informazio euskarrietan (telefonoen zerrenda, langileen direktorioa, eta abar), langileak zein hizkuntzatan gaituta dauden adierazi behar da.

3. Izaera pertsonaleko komunikazio administratiboak (nominak, lizentziak, kontratuak, etab.) euskara hutsean izango dira hala eskatzen dutenentzat. Horretarako, udaleko langileek egindako hizkuntza hautua agerrarazteko, datu base edo antzekoren bat sortuko da.

### **IV. Beste herri administrazioekiko harremanak.**

1. Leioako Udalaren harremana euskaraz izan nahi dutela berariaz adierazten duten herri administrazioekiko edo haien organoekiko harremanetan, Leioako Udalak bidaltzen dituen idatziak euskaraz sortu eta bideratu behar dira.

2. Beste herri administrazioetatik jasotako idatzien erantzunei dagokienez, euskaraz idatzitako agiriena euskaraz bideratuko da. Idatzia ele bietan edo gaztelaniaz jaso bada, bi hizkuntza ofizialetan bideratuko da.

3. Leioako Udaleko euskarazko atal gisa izendatuak diren zerbitzuek, Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri administrazioekiko harreman idatziak euskaraz izan behar dituzte; eta bi hizkuntza ofizialetan gainerako zerbitzuek, espedientea Leioako Udalean hasten den kasuetan, artikuluko honen 1. zenbakian egiten den salbuespenaz.

4. Herri administrazioa Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko izanda, euskara ofiziala den lurralde batean dagoenean, Leioako Udaletik bidali beharreko dokumentazioa euskaraz idatziko dute Leioako Udaleko euskarazko atal gisa izendatuak diren zerbitzuek, eta gainerako zerbitzuetan hizkuntza ofizial bietan idatziko da, artikuluko honen 1. zenbakian egiten den salbuespenaz.

## **V. Komunikazio instituzionala.**

1. Leioako Udalaren ardurapean egiten diren komunikazio ekintza guztiek plan bat izan behar dute alde zuzenetik, ekitaldiaren hizkuntza tratatua eta beharrezkoak diren bitartekoak zehazki argitu behar dituenak.

2. Komunikazio ekintza bat bi hizkuntza ofizialak txandaka erabilia egin behar den kasuetan, ziurtatu behar da erabilera orekatu bat egiten dela, hizkuntza bakoitzari esleitutako gaietan nahiz denboretan.

## **VI. Itzulpen irizpideak hizkuntza ofizialen erabilera arloan.**

1. Hizkuntza ofizial bietan argitaratu behar diren idatziak itzultzeko betebeharra departamentu bakoitzaren erantzukizuna da, kasu bakoitzean.

2. Administrazio atal bakoitzean dauden bitartekoak erabilia ziurtatu behar da dokumentu elebidunak sortzea, Leioako Udalaren itzulpen zerbitzura jo zuzenetik.

3. Dokumentuen hartzaile eta helburuak kontuan izango dira, itzulpenak egin edo eskatzerakoan:

a) Lehentasuna izango dute zabalpen publikoa duten dokumentuek (herritarrei, komunikabideei, euskara ofiziala den lurralde batean kokatutako administrazioei, ... zuzendutakoak).

b) Lehentasun txikiagokoak izango dira udalaren barruko lan-dokumentuak, zirriborroak, behin betikoak ez direnak eta artxiborako diren dokumentuak.

Horrela, itzulpen (eta euskara) zerbitzuak arretaz aztertuko du itzultzeko jasotako dokumentazioa, eta bakarrik itzuliko da behar- beharrezkoa bada.

4. Protokolo zehatz bat ezarriko da edozein dokumenturen itzulpena eskatzeko prozeduraren ingurukoa, eta Leioako Udaleko langile horren guztiaren berri jakinaraziko zaie.

## **HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERAREN GAINEKO IRIZPIDEAK LEIOAKO UDALAREN MENDEKO JARDUN ESPARRUETAN**

## **VII. Langileen etengabeko prestakuntza.**

1. Hirugarren edo laugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileek euskaraz jasoko dituzte Leioako Udalaren prestakuntza plan orokorreko ikastaroak. Horretarako, beharrezko diren neurriak hartuko ditu langileen prestakuntzaren ardura duen departamentuak.

2. Langileen prestakuntza ikastaroetan izena emateko tresnetan, hizkuntza ofiziala aukeratzeko alor bat izango da, aurreko zenbakian xedatutakoari egokituta.



3. Prestakuntza plan orokorretik kanpo, departamentuek beren langileentzat ikastaro bat antolatzerakoan lehentasuna eman behar diote euskararen erabilerari, beti ere parte hartuko luketen langileen hizkuntza-gaitasunak ahalbidetuko balu.

4. Departamentuek besterentzat antolatzen dituzten prestakuntza ekintzetan lehentasuna eman behar diote euskararen erabilerari, beti ere parte har lezaketen pertsona horien hizkuntza-gaitasunak ahalbidetuko balu.

5. Orobat, Leioako Udalaren prestakuntza ikastaroak antolatzerakoan, prestatzaile euskaldun eta euskarazko edukiei eman behar zaie lehentasuna.

6. Leioako Udalaren prestakuntza plan orokorretik kanpo, hirugarrenengoek emandako ikastaroetarako ere, artikuluko honetan xedatutakoaren arabera jokatu beharko da.

## **VIII. Udal langile eta funtzionarioen hautaketa**

### **1. Lanpostu berriak eta programakoak**

Lan-kontratudun zein funtzionarioen hautaketa prozesua hasi baino lehen, lanpostuari dagozkion eginkizunak eta betebeharrak zehaztuko dira, eta horiek kontuan hartuta hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun data ezarriko dira; horretarako, pertsonal arloak euskara zerbitzuari jakinarazi beharko dio Leioako Udalak lanpostu berria sortzeko asmoa duela.

Lanpostu berriak edo programak sortzen direnean, kontuan hartu beharko da norako diren eta zer betebeharrak izango dituzten. Euskarazko ataletan eta atal elebidunetan, edo hauekin harreman zuzena dagoenean, bereziki zaindu beharko da sartzeko diren langile berrien hizkuntza gaitasuna, eta behar den kasuetan euskararen beharra adierazi Funtzio Publikoaren Sailera egiten den kontratazio eskean.

Lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizunari eta –hala badagokio– derrigortasun-datari buruzko txostena egingo du Euskara Zerbitzuak. Dena dela, edozein erabaki hartu aurretik, gaiaren inguruko txostena eskatuko zaio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari. HPSren irizpena jakinda, udalbatzak erabakiko du zein hizkuntza eskakizun –eta, hala badagokio, derrigortasun-data– ezarriko dion lanpostuari.

Egitekoa edozein dela ere, aldi baterako langileren bat kontratatu edo behin-behineko izendatu behar izanez gero, Leioako Udalak lanpostu-zerrendako langileei, kasuan kasuko betebeharren arabera, exijitzen dien HEaren pareko euskara gaitasuna eskatuko die. Betekizun hori EAEko abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legeak, IV. Tituluko I. Kapituluaren 46.1 artikuluko g. hizkuntza gaitasunaren helduz egingo da.

*46. artikulua.- Lanpostu-zerrenden edukia. 1.-Lanpostu-zerrendek datuok adieraziko dituzte, nahitaez, lanpostu bakoitzeko: (...) g. Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data. (...)*

Beraz, udalean, eta irizpide nagusi bezala, edozein lanpostu berri legez hornitzeko, dagokion hizkuntza eskakizunari igarotako derrigortasun data ezarriko zaio, 1. hizkuntza eskakizuna ezarria dutenei izan ezik, langileak lanean hasi baino lehen egiaztatua izan dezan.

1) Hutsik dauden lanpostuak

a) Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak:

Derrigortasun-data igaro bada, hizkuntza- eskakizuna nahitaez hautaketa prozesuan egiaztatu beharko da.

Derrigortasun data igaro ez bada, aipatutako lanpostua betetzen duen udal langileak derrigortasun eguna iragan arteko epea izango du lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko.

b) Derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik ezarrita ez duten lanpostuak:

Euskara jakitea merezimendu gisa baloratuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 31. artikulua jasotzen dena kontuan hartuta:

1. eta 2. HE: %10

3. eta 4. HE: %20

2. Lanpostuen zerrendan (LPZ) ageri ez diren lanpostuak

Lanpostu horrek dituen funtzioen araberako hizkuntza-eskakizuna (HE) ezarriko zaio, eta langilegaiek administrazioarekiko lan- harremana hasi baino lehen egiaztatu beharko dute.

Deialdian espresuki zehaztuko da zein den, kasuan kasu, kontratazioan eskatuko den euskara maila, eta horretarako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, 2017ko abenduan, argitaratu eta HAKOBAK onetsi duen [Hizkuntza-eskakizunak esleitzeko proposamena](#), beti ere apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua oinarri hartuta.

3. Derrigortasun-data iraganda duten lanpostuak betetzea

Derrigortasun-data iraganda duen edozein lanpostu betetzeko hautaketa-prozesuan, udalak probetako bat, gutxienez, euskaraz egitea eskatuko dei hautagaiei. Horretarako, lanpostuko funtzioak euskaraz zein gaztelaniaz betetzeko gaitasuna neurtzeko probak diseinatu eta egingo ditu hautatze-probetako epaimahaiak.

## **IX. Kontratazio administratiboak.**

1. Hizkuntza-arloko araubide juridikoa betetzea

Euskadiren Autonomia Estatutuaren 6. artikulua, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta lege hori garatzen duten arauak bi hizkuntza ofizialeko araubidea ezartzen dute, eta

garatzen duten arauak bi hizkuntza ofizialeko araubidea ezartzen dute, eta oro har, araubide horren menpe egongo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren kontratazio organoek egiten dituzten kontratu guztiak.

Beste aldetik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluko 8. atalaren arabera:

*"Herritarren hizkuntza-eskubideei eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza- ofizialtasunaren erregulazioa betetzeari dagokienez trazarik gertatu ez dadin indarreko legeriak onartzen dituen zehar-kudeaketa moduetako baten bitartez zerbitzua emateagatik, toki-erakundeek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, hirugarren batzuek egikaritzen dituzten zerbitzu publikoetan helburu hauek bermatze aldera:*

- a) *Kontratuaren xedeak bete dezala bere izaeragatik eta zerbitzuaren titularra den toki- erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria.*
- b) *Herritarrak artatuak izan daitezela berek hautatzen duten hizkuntza ofizialean.*
- c) *Zerbitzua eman dadila, hizkuntza-baldintzei dagokienez, zerbitzuaren administrazio titularrari exijitu ahal zaizkion baldintza beretan."*

Hori horrela, kontratazio-arloko eskumena duten administrazio-atalek, kontratu proposamenak egiten dituztenean, kontuan hartu beharko dute zerbitzu publikoen erabiltzaileek eskubidea dutela zerbitzua haiek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean jasotzeko, euskaraz nahiz gaztelaniaz.

## 2. Botere esleitzzailearen betebeharrak

Koofizialtasunaren legezko araubidea betetz, Leioako Udalak bermatuko du kontratua arautuko duten lizitazio-iragarkiak, administrazio-klausula berezien agiriak, baldintza teknikoak agiriak eta kontratuko gainerako dokumentuak lizitatzaila bi hizkuntza ofizialean eskuragarri izango dituztela.

## 3. Kontratu-klausulen agiriak egitea

Egin beharreko kontratuen administrazio- klausula berezien agiriak edo, kasuaren arabera, baldintza teknikoak agiriak prestatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- 1) Oro har, eta kontratu mota guztietan, normalean euskara erabiliko da administrazio kontratu-egilearen eta kontratistaren arteko harremanetarako. Kontratua gauzatzeari begira, hau ulertuko da "normalean euskara erabiliko da" esaldiarekin:
  - a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua gauzatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen bazaio kontratua gauzatzen ari den

kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin izan beharreko harremanak euskaraz gauza daitezzen.

b) Komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

2) Nolanahi ere, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan eta obra publikoak eta zerbitzuak esleitzeko kontratuetan, kontratuaren helburuetako bat herritarrei zerbitzuak ematea bada edo kontratuak berekin badakar hirugarren batzuekin edo oro har herritarrekin harremanak izatea, erabiltzaileak edo hirugarren horrek aukeratzen duen hizkuntza erabiliko da enpresa esleipendunaren eta erabiltzaileen edo kontratua gauzatzeko harremanetarako pertsonen arteko komunikazioan, bai idatziz eta bai ahoz. Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratuaren esleipena duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dizkien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne. Hala ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Nolanahi ere, zerbitzuaren hartzaileek arreta, informazioa eta komunikazioa uneoro euskaraz jasotzeko behar diren bitarteko materialak eta langileak jarri beharko ditu kontratistak.

Legea edo aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboko klausulak aplikatuz esleipendun berria kontratu amaituari atxikitako langileekin subrogatu behar bada lan-harremanei dagokienez, eta horiek ez badaukate hizkuntza-gaitasunik kontratuko klausuletan hizkuntzari buruz ezarritako baldintzak betetzeko, euskara kontratuan eskatzen den bezala ezagutzen eta erabiltzen duten langileak hartu beharko ditu esleipendun berriak langile subrogatuak ordezteko.

3) Obra-kontratuetan eta obra publikoak esleitzeko kontratuetan, eskatuko da errotulu, argitalpen, seinale, ohar eta komunikazioak eta, oro har, interlokuzioak euskaraz egon daitezela bermatzea.

4) Hornidura-kontratuen kasuan, etiketan edo/eta produktuaren bilgarrian eta produktuaren dokumentazio teknikoan eta jarraibideetan kontratistak euskara erabiliko duela bermatuko da. Horretarako, kontratistak bi hizkuntza ofizialetan emango ditu kontratuaren xede diren ondasun eta produktuen erabilera-eskuliburuak edo dokumentazioa, baita softwareen testu- eta soinu interfazeak ere.

5) Azterlanak, txostenak, proiektuak edo antzeko lanak egiteko zerbitzu-kontratuetan, kontratua gauzatzat jotzeko baldintza gisa ezarriko da lan horiek bi hizkuntza ofizialetan entregatzea, softwareen testu- eta soinu-interfazeak barne. Baina, euskararen erabilera eta ezagutza kontratuaren xedeari beren-beregi lotuta dagoenean, zerbitzua euskara hutsean eman

dadila ezarri ahal izango da baldintza teknikoaren orrietan.

6) Zerbitzu publikoen kudeaketako kontratuetan, herritarrei zerbitzuak eskainiz gero, kontratistak euskara eta gaztelania erabili beharko ditu ekoizten dituen produktuen errotulazioan, megafonia bidezko komunikazioetan, jarraibideetan, etiketetan eta bilgarrietan, bai eta zerbitzu-emateak eragiten dituen dokumentuetan ere.

4. Kontratuetan euskararen erabilerari buruz

1) Bi hizkuntza ofizialak irizpide hauetan kontratu mota bakoitzarentzat ezarritako eran eta irismenarekin erabiltzea, a) kaudimen teknikoari dagokion baldintza bat izan daiteke, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 76. artikulutik 79.era aurreikusten den moduan; b) testu bategin horren 147. artikuluan aurreikusten den gisako hobekuntza bat izan daiteke; edo, c) kontratua jarraibide hauen arabera betetzeko baldintza berezi bat izan daiteke.

a) Hizkuntza-betekizuna kaudimen-baldintza gisa erabiltzea.

Euskararen ezagutza eta erabilera kontratuaren xedeari beren-beregi lotuta dagoen kasuetan, kontratazio-organoak hizkuntza-arloko gutxieneko kaudimen-baldintzak ezarri ahal izango ditu administrazio-klausula berezien orrietan, edo, bestela, kontratua behar bezala gauzatzeko langile egoki eta nahikoak jartzeko konpromisoa har dezala exijitu ahal izango dio kontratistari orri horietan. Bi kasuetan, proportzionaltasun-printzipioa errespetatu beharko da.

Kontratua gauzatzeko duten langileak identifika ditzala eskatu ahal izango dio Leioako Udalak kontratistari. Kasu horretan, kontratistak adierazi beharko du zein langilek dakien euskaraz eta kontratuaren betearazpenaren harira zeinek izango dituen ahozko eta idatzizko harremanak Leioako Udalarekin eta azken erabiltzaileekin.

b) Hizkuntza-betekizuna eskaintza ekonomiko onuragarriena aukeratzeko hobekuntza irizpide gisa erabiltzea.

Lizitazio-prozeduretan, administrazio-klausula berezien orriek eskaintza ekonomiko onuragarriena aukeratzeko irizpide gisa ezarri ahal izango dute, hobekuntza modura, kontratua gauzatu behar duten pertsonen hizkuntza-ezagupen eta -gaitasuna eduki behar dutela, betiere hobekuntza horiek kontratuaren xedea betetzearekin lotuta badaude, ez badiete erreferentziarik egiten enpresa lizitatuzaileen ezaugarriari eta kontratuaren xedearekin zerikusituzena duten prestazio osagarriak euskaraz gauzatzeko badira.

c) Hizkuntza-betekizuna kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa erabiltzea.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa euskararen ezagutza eta erabilera aurreikusita dagoen kasuetan, hau da, hori kontratuko betebeharra denean, betebehari hori ez betetzeak ondorioak ekarriko ditu; hain zuzen ere kontratu-

klausulak betetzen ez direnerako legez ezarrita duden ondorioak, betiere ez-betetze horri administrazio-klausula berezien agirian ematen zaion izaeraren arabera.

2) *Kontratu-klausulen agiriak egitea* izeneko ataleko 1. eta 2. irizpideetan aipatzen diren betearazpen-baldintza bereziak funtsezko kontratu-betebehar gisa sartuko dira administrazio-klausula berezien orrietan. Hortaz, kontratistak horiek ez betetzeak kontratua suntsituta geratzea eragin dezake.

3) Atal bereko 3tik 6ra bitarteko irizpideak aplikatuz ezartzen diren gainerako betearazpen-baldintza bereziak ez betetzearen ondorioz, oro har kontratu-klausuletako edozein ez betetzeagatik aurreikusten diren ondorioak sortuko dira; beraz, baldintza horiek betetzen ez badira, zigorrak ezarri ahal izango dira, dagokion administrazio-klausula zehatzen pleguan hala ezartzen bada..

4) Kontratazioetan euskara sustatu eta erabiltzeko helburuarekin jarraibide hauen bidez ezartzen diren arau eta jarduerak errespetatu egin beharko dituzte lizitazioetan parte hartu ahal izateko printzipioa, prozeduren publikotasun eta gardentasunaren printzipioa eta hautagaiak ez diskriminatzeko eta denei tratu berdina emateko printzipioa, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginean aurreikusitako moduan.

5) Jarraibide hauetan zehaztutako baldintzak betetzeagatik euskararen ezagupena eta erabilera kontratuko betekizuntzat eskatzea, kaudimen teknikoko irizpidetzat eskatzea edo hobekuntzatzat eskatzea ez dadin egon kontratazio publikoaren arloko printzipio orokorren kontra, ez dadin arbitrarioa izan eta ez dadin arrazoirik gabea izan, ezinbestekoa da betekizun zehatz bakoitza kontratazio- espedientean arrazoitzea eta justifikatzea.

#### 5. Hizkuntza-irizpideen ebaluazioa

Baldintza-agirian jasotzen diren hizkuntza- baldintzak zenbateraino bete diren ebaluatzea funtsezkoa da:

"Zerbitzua sustatu duen sail edo unitateak -edo honek izendatzen duenak- ebaluatuko du administrazio honetako administrazio orokorrak egindako kontratuetan ezarritako hizkuntza- baldintzak zenbateraino bete diren, ebaluaketa kontratua gauzatzen ari den bitartean edo bukatutakoan egin ahal izango da.

Ebaluaketan, hizkuntzaren zuzentasuna eta komunikazioaren aldetik prestazioak izan duen kalitatea ere aztertu ahal izango dira.

Horretarako, Leioako Euskara Zerbitzuak bere zereginak behar bezala burutzeko behar duen informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango die kontratazio-organoei.

Udaleko sail bakoitzak izango du bere gain hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko honako arauak ezagutzen eta betetzen direla bermatzea, beti ere Leioako Udalak onartua duen euskararen erabilera planean erabakitakoaren arabera.

## **X. Dirulaguntzak.**

Dirulaguntzak jasotzen dituzten herriko talde eta elkarteek bete egin beharko dituzte dirulaguntzetan ezarritako hizkuntza irizpide eta arau guztiak, eta Udalak irizpide horien berri eman beharko die.

1. Dirulaguntzak esleitzeko eta haien zenbatekoa finkatzeko irizpideen eta arauen artean hizkuntza ofizialen erabilera kontuan izango da, dirulaguntzaren xede den jardueran esparruan hizkuntzaren erabilerak eragin nabarmen bat duenean, eta, oro har, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen Erabilera Normalizatzekoari buruzkoak, 26. eta 27. artikuluetan xedatutako arloetan.

2. Leioako Udalaren dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek diruz lagundutako jardueraren bitartez sortzen diren dokumentu, euskarri, publizitate eta agerpen publiko guztietan bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko berdintasun irizpide bat erabili beharko dute, era horretan ziurtatzen baita herritarren hizkuntza hautatzeko eskubidea, diruz lagundutako jardueraren jendaurreko emaitzei dagokienez.

3. Dirulaguntza kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte, onuradunek artikulua honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko eta hizkuntza ofizialen erabileraren zuzentasuna zaintzeko.

4. Leioako Udalak ez ditu sustatuko, edozein bitarteko dela medio ere, gaztelania hutsean zabalitzen diren diruz lagundutako ekintza/ekitaldiak.

5. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko hizkuntza- irizpideak ez betetzeak emandako guztizko dirulaguntzari dagokion zati proportzionala bertan behera uztea edo itzuli behar izatea ekarriko du.

## **XI. Udalarenak diren instalazio eta lokalen erabilera**

Udalarenak diren instalazioak, lokalak, plazak, bide publikoak eta materialak erabili nahi dituzten erakunde eta enpresa guztiek bete egin beharko dituzte dagokien baimenean ezarritako hizkuntza irizpide eta arau guztiak, eta Udalak irizpide horien berri eman beharko die.

## **XII. Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak.**

1. Leioako Udalaren iragarpen ofizialak eta gainerako publizitate ekintzak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, eta lehentasunez nahiz jatorriz euskaraz sortu behar dira.

2. Iragarpenok euskara hutsez argitaratuko dira euskarazko hedabideetan.

3. Mezu igozle den departamentuaren erantzukizun dira edukien hizkuntza egokitasuna eta zuzentasuna.

## **XIII. Argitalpenak.**

1. Leioako Udalaren administrazio prozeduraz kanpo diren hedapen, sustapen eta informazio argitalpen analogiko zein digitaletan bi hizkuntza ofizialak modu orekatuan erabili behar dira, euskarari lehentasunezko lekua emanik konposizioan, tipografian eta gainerako ezaugarri formaletan.
2. Bi hizkuntza ofizialez gain, argitalpen bat beste hizkuntzetan ere egin behar denean, euskara eta gaztelania erabili behar dira lehenik, hurrenkera horretan.
3. Leioako Udalaren ardurapean kaleratzen diren argitalpen guztiek edizio plan bat izan behar dute aldeztu aurretik, argitalpenaren hizkuntza trataera nola egingo den argitu behar duena, artikuluko honetan xedatutakoaren arabera.

#### **XIV. Tresna eta aplikazio informatikoak.**

1. Programa informatiko komertzial edo orokorren kasuan, hau da, berariaz Leioako Udalaren erabilerarako sortzen ez direnetan, euskarazko bertsioa baldin badute, bertsio hori instalatu behar da 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten langileen ordenagailu guztietan.
2. Leioako Udaleko zerbitzuen erabilerarako berariaz sortzen diren programa edo tresna informatikoak bi hizkuntza ofizialetan berdin lan egin ahal izateko prestatu egon behar dira. Departamentu edo zerbitzu bakoitzak bere erantzukizunpean izango du hori bermatzeko neurri zehatz eta argiak hartzea.
3. Xede horri begira, kontuan hartu behar dira programa informatikoaren moldaera sortzerakoan bertsio elebidun bat egiteko egon ohi diren hizkuntza baldintzapenak. Bereziki saihestu behar da programa osorik gaztelaniaz egin eta guztiz bukatu ostean ekitea euskarazko bertsioari.
4. Aplikazio berri guztiak prestatuta egongo dira emaitza dokumental euskaraz sortzeko.

#### **XV. Internet eta intranet sareak.**

1. Leioako Udalaren eskumenean diren Internet eta intranet sareetako edukia, oro har, euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egon behar dira.
2. Leioako Udalaren eta departamentuen webguneetara sartzean, euskarazko orria agertu behar da lehendabizi, eta orri horretan bertan egon behar da gaztelania hautatzeko aukera, baita beste hizkuntzak ere, edukia besteren batean ere baldin badago.
3. Leioako Udalaren ardurapeko webguneen URLen nahiz posta elektronikoko helbideen osagaiak euskarazko hitzez eratuak izan behar dira.
4. Leioako Udalaren eskumenean diren webgune eta helbide elektronikoak .eus domeinuan egon behar dira.
5. Internet eta intranet sareen bidez izapideak egiteko aukera ematen denean, izapide horiek euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egiteko moduan



egongo dira.

### **XVI. Erregistroa.**

1. Leioako Udaleko bulegoetako erregistro administratiboetan dokumentuen inskripzioa egingo da dokumentuak idatzita dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan.
2. Erregistroaren inskripzioa hizkuntza ofizial batean zein bestean egonik ere, erregistroa kontsultatu nahi duen herritarraren hizkuntza hautapena errespetatzeko, behar den guztietan inskripzioaren itzulpena ziurtatuko da.

### **XVII. Errotulazioa eta jendearentzako argibide osagaiak.**

1. Leioako Udalak dituen bulego, egoitza zein lagatako lokal guztietako kanpoaldeko nahiz barrualdeko errotulazioa, oro har, euskaraz eta gaztelaniaz agertu behar dira.
2. Errotuluetako testua euskara hutsean idatzi behar da kasu hauetan:
  - a) Errotuluetako hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
  - b) Mezuak piktograma batez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean.
3. Jendearentzako gainerako argibide elementuetan (testuak, grafikoak edo ikus-entzunezkoak) euskara eta gaztelania erabili behar dira.
4. Euskarri berean bi hizkuntza ofizialak aldi berean jaso behar direnean, euskarak hartuko du hurrenkeraren lehen lekua.

## **LEIOAKO UDALAREN ADMINISTRAZIO ATALEN IZAERA ETA HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK**

### **XVIII. Administrazio atalen izaera eta hizkuntza helburuak.**

Leioako Udalaren administrazio atalen izaera eta hizkuntza helburuak zehazten dira, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoaren arauz, irizpide hauen 1. eranskinean ageri den eran.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, udal sailtako administrazio atalak honela sailkatzen dira:

#### **JENDAURREKO ATALAK:**

Administratuarekin ahozko nahiz idatzizko harremanetan oinarritzen diren lanpostu/atalak dira jendaurrekoak. Harremanok aurrez aurrekoak edota

telefono bidezkoak dira.

#### GIZARTE IZAERAKO ATALAK:

Bere harreman sarea, bereziki, gizarte mailakoa da, hau da, kanpora begirako harremanak dira nagusi izaera honetako ataletan. Oro har, hezkuntza eta irakaskuntza zerbitzuak, osasun zerbitzuak, erabiltzaile eta kontsumitzaileentzako informazio bulegoa, gizarte ekintza zerbitzuak, herritarren babesa eta segurantza zerbitzuak dira gizarte izaerako atalak.

Edozelan ere, aurreko atal biak kategoria bakar batean bilduko dira, ZERBITZU-EGINKIZUNAK izenekoak.

#### IZAERA OROKORREKO ATALAK:

Bere zeregin nagusia, administrazio barruan du: informatika, funtzio publiko eta giza baliabideak, idazkaritza, ogasuna, hirigintza, ingurumena eta agintaritza bezalako atalak dira izaera orokorrekoak.

#### IZAERA BEREZIKO ATALAK:

Izaera instrumentala duten zerbitzu edo atalak dira, garbiketa, obrak, eraikuntzen eta instalazioen mantentze arloetan esku lanak edota zeregin teknikoak dituztenak.

##### 1. Euskarazko administrazio atalen identifikazioa.

1) Aurreko puntuan xedatutakoa baztertu gabe, administrazio atal elebidun batek euskarazko administrazio atalaren izaera hartuko du, berariazko aitortpen xedapenik behar izan gabe, baldin eta langileen % 85ek lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatua badute eta arduradun teknikoak (atalburu edo zerbitzu buru) hirugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatua badu.

2) Administrazio atal elebidunak izango dira honako baldintzak betetzen dituzten zerbitzu-eginkizunekoak (jendaurreko edo gizarte izaerakoak): langileen % 85ek lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea eta arduradun teknikoak (atalburu edo zerbitzu buru) hirugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea.

##### 3) Berariazko jarraibideak euskarazko administrazio atalantzat.

Euskarazko administrazio unitatearen aitortpena duten atalek puntu honetan xedatzen diren jarraibideak izango dituzte.

###### a) Harrera eta informazioa.

a. Euskarazko administrazio atalek informazio prozedura bat izan behar dute, bertara lanera doazen langile berriek nahiz bertan lanean ari direnek zehazki jakin ditzaten atalaren zerbitzu eta lan hizkuntza irizpideak.

b. Ziurtatu behar dute herritarren harrera egiteko ardura duten lanpostuetako langileek zerbitzua euskaraz era egokian ematen dutela.

###### b) Lan hizkuntza.

a. Euskara izango da lan hizkuntza nagusia, bai laneko eginkizun idatzietan,

bai ahozkoetan.

b. Euskarazko atal batetik Leioako Udaleko beste zerbitzu batera doan dokumentazioa euskaraz sortu eta bidaliko da.

Zerbitzu jasotzailearen ardura da bitartekoak behar bezala antolatzea agiri horiek euskaraz tramitatu ahal izateko, eta, behar denean, erantzuna euskaraz sortu eta bidaltzeko.

4) Laneko prestakuntza eta sustapena.

a) Atal hauetako langileek euskaraz jasoko dute laneko prestakuntza, oro har.

b) Administrazioaren barruko hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko helburua duten ikastaroetarako asistentzia dagokion barne erregelamenduaren bidez arautuko da.

### **XIX. Lanpostuei ezarritako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak.**

Leioako Udalaren lanpostuei ezarritako hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun datak berraztertuko dira, beharrezko iritziz gero, 86/1997 Dekretuak 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, 2017ko abenduan, argitaratu eta HAKOBAK onetsi duen "Hizkuntza- eskakizunak esleitzeko proposamena" kontuan izanda.

Edozelan ere, eta irizpide nagusi gisa, zerbitzu- eginkizuneko (jendaurreko eta gizarte izaerako) ataletako lanpostu guztiek derrigortasun-data ezarria izan beharko lukete, euren zeregin nagusia herritarrekiko harremanetan oinarritzen baita.

Derrigortasun-datai dagokienez, honako irizpide hauek ere kontuan izango dira:

a) Edozein arrazoiengatik hutsik geratu edo geratzekoak diren lanpostuei iraungitako derrigortasun-datak jarriko zaizkie. Horren bidez, bermatuko da postu horiek betetzeko hautagaiek lanerako hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea.

b) Behin hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data ezarrita, ezin izango da atzeratu (beranduagoko data batekin ordezkatu). Aldiz, aurreratu ahal izango da.

### **XX. Salbuespen-arauak**

Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 187.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuko 42. atalean adierazten den bezala, ondorengo hauek ez dute hizkuntza eskakizunen derrigortasun araudi orokorra bete beharrik izango, euren lanpostuei dagokienez:

a) Plangintzaldietako bakoitza hasterakoan 45 urtetik gora dutenek,

interesatuak eurak aurretiaz ados egonez gero.

- b) Oinarrizko Batxilerra edo Oinarrizko Heziketa Orokorra gainditu ez duten pertsonak. Ez dira kontuan hartuko, eskolatzeko-egiaztagiria dela eta, legeak beste helburu batzuetarako ezarritako baliokidetzak edo baliozkotzeak.
- c) Minusbaliotasun fisiko edo psikologikoak izanik, gaur egun helduen hizkuntz trebakuntza eta gaitasuna lortzeko erabiltzen diren programen bidez euskaraz ikasteko eragozpenak edo ezintasunak dituzten pertsonak.
- d) Hizkuntzak ikasteko prozesuan ezinbestekoa den gutxieneko trebetasun-gaitasunik ez duten pertsonak, ezintasun hori ageri-agerikoa eta egiaztatua denean.

Edozelan ere, artikulua honetako a) atalari dagokionez, eta apirilaren 7ko 2/2016 Legea oinarritu harturik, Euskadiko Toki Erakundeek benetako ahalmena edukiko dute udalei dagozkien gaiak eta arazoak oso-osorik beren erantzukizunpean antolatzen eta kudeatzeko. Hori horrela izanda, Leioako Udalak, 54 urtetik gorako langileen kasuan, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzen betebeharraz salbuetsita daudela erabaki dezake, interesatuaren alde aurretiko adostasunik gabe ere, beti ere derrigortasun-data berriak ezartzea beharrezko joz gero.

### 7. PLANA GARATZEKO EGITURA

Diseinatu dugun Euskararen Plan Estrategikoa garatzeko egitura zehaztea ezinbestekoa da. Plana abiatzeko eta garatzeko beharrezko jotzen dugu, batetik, **Planaren ardura izango duen edo duten pertsona(k) izendatzea; koordinatzailea(k)** Koordinatzaileen zeregin nagusia izango litzateke plana egunerokoan kudeatzea eta alderdi operatiboez arduratzea. Koordinatzaileek Udalaren arduradun politiko eta teknikoen babesa izatea ezinbestekoa da planak arrakasta izan dezan.

Bestalde, Kudeaketa Planean jasotako ekintzak garatzen laguntzeko, berriak proposatzeko eta segimendua egiteko lantaldea edo **Euskara Batzordea** osatuko da. Batzorde horretan sailtako ordezkariak parte hartuko dute, eta kideen artean arduradun egon ezean, haien babesa luketen pertsonak osatuko dute.

Planaren koordinatzaileak izango dira Planari segimendua egingo diotenak eta ekintza ezberdinak koordinatuko dituztenak. Hauek izango lirateke koordinatzaileen eginkizunak:

- Euskara Planaren pertsona erreferenteak izango d(ir)a.
- Euskara Plana koordinatuko du(te).
- Euskara Batzordeko kideen artean Euskara Planarekin lotutako ardurak eta eginkizunak banatuko ditu(zte) eta haiek gauzatzen lagunduko du(te).
- Euskara Batzordearen eginkizunen jarraipena egingo du(te).

Euskara Batzordearen parte-hartzaileak izendatzeko irizpideak zehaztu beharko dira, baina hauek dira kontuan hartuko diren gutxienekoak: esan bezala, sail ezberdinak ordezkatuta egotea, borondatezkoa izatea eta arduradunen bat izatea. Horiek kontuan izanda, Planaren diseinuan parte hartu duen lantaldea litzateke aukera egokia. Hauek izango dira lantaldearen zereginak:

- Euskara Planaren helburuak finkatu eta jarraipena egin.
- Kudeaketa Planaren garapena bermatu eta segimendua egin.
- Planaren barnean maila desberdinetan parte hartzen duten lankideekin komunikazioa landu.
- Kudeaketa Planean jasotako ekintzak gauzatzen lagundu, berriak proposatu eta koordinatu.

### 8. JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA

Oso garrantzitsua da Planaren **etengabeko segimendua eta ebaluazioa egiteko sistema** bat zehaztea. Planaren arduradunak, Euskara Batzordearen laguntzarekin, kronograman jasotako neurrien segimendu jarraitua egingo du, Planaren Excel dokumentuan bertan. Segimendu horren bidez aurreikusitako ekintzen betetze-maila ezagutuko dugu urtez urte.

Ekintzen betetze-maila modu sinplean jasoko dugu urtero: ekintzak erabat burutu diren, erdizka burutu diren edo burutzeke geratu diren erregistratuz. Horrez gain, urte bakoitzean betetze-maila erregistratzeaz gain ekintza bakoitzarekin lotuta zer egin den ere erregistratu ahal izango dugu, betetze-mailaren ondoan oharrak jasoz.

		ERABILERA			
ADIERAZLEAK		EKINTZAK	ARDURADUNAK	BALORAZIOA	OHARRAK
21	Erakundearen errotiluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude	Langileen barne-errotiluaren diagnostikoa egin, sailka, eta euskaratu			
22	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude				
23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan				
24	Erakundeak euskaraz dauka webgunea eta sare sozialak				
25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	Udalean euskaraz egiteko kanpaina abiatu	Euskara Zerbitzua		
26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	Zerbitzu-hizkuntza egiten duten langile guztiekin harrera-protokoloak landu (udaltzainak, kiroldegia...)	Euskara Zerbitzua, idazkaritza eta arduradunak		
27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	Partaidetza-saioak euskara hutsean egin daitezkeen aztertu	Sail bakoitzeko arduradunak		
28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	Langileei gogorarazi informazio bera eman behar dela hizkuntza bietan	Alkatetza eta Komunikazioa		
29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	Erroldan eta Izen-emateetan hizkuntza-hautuaren aukera txertatu	Idazkaritza eta Euskara Zerbitzua		

Segimenduak lagunduko digu ondo egindakoak antzematen, baina are garrantzitsuagoa, hobetu beharrekoak identifikatzen. Hartara, neurri zuzentzaileak edo/eta ekintza berriak proposatzeko aukera izango dugu.

EGOERA
BIDEAN
EGINDA
EGIN GABE
BERTAN BEHERA
ATZERATUTA


### 9. PLANAREN KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa arrakastarako gakoa da horrelako egitasmoetan. Komunikazioa beharrezkoa da, besteak beste, prozesua abiatu aurretik, prozesuak irauten duen bitartean eta prozesua amaitutakoan. Prozesuko partaideen iritzia galdetegi bidez jaso ditugu eta Erabilera Batzordean emandako informazioarekin eta ekarpenekin osatu dugu Euskararen Plan Estrategikoa. Prozesuan zehar lankide guztiek izan dute euren ekarpena eta iritzia emateko aukera eta, orain, prozesuaren emaitza partekatzea ezinbestekoa izango da.

Garrantzitsua izango da planaren berri langile guztiei ematea, eta oinarriak lantzea. Euskara Plana guztientzako plana da eta hasieratik langile guztiak dinamikaren parte sentitzeko komunikazio eraginkorra bideratu dugu.

Ondoren, planaren garapenean ere, Euskara Batzordeak garrantzia emango dio komunikazioari, eta, aldiro, bideratzen diren ekintzen inguruko informazioa zabaltzeko moduak aztertuko ditu.

Plana abian jartzeko lehen urratsa beraz, egitura osatzea izango da, baita diseinatutako plana garatzen hasteko ardurak banatzea eta ekintzak zehatzak planifikatzea eta antolatzea ere.



*“Planifikatzea, etorkizuna orainera ekartzea da, orain urratsak ematen has gaitzen”*